

DIRU SARRERAK

Proiektu honetan lau bazkide gara, eta laurak negozioan parte-hartze berdina izango dugula erabaki dugu. Kooperatiba bat osatuko dugu eta gutako bakoitzak 50.000€ko desenboltsapena egingo du, hortaz gure ekarpenetatik 200.000€ lortuko ditugu. Hasierako inbertsioa 328.000€koa izango dela aurreikusi da eta gure intentzioa gehiegi ez zorpetzea den arren ezinbestekoa izango dugu mailegu bat eskatzea negozioa martxan jarri ahal izateko eta geratzen den hasierako gastua ordaindu ahal izateko.

Bai Leioako Udaletxeak zein Bizkaiko Foru Aldundiak dituen ekintzaileentzako diru laguntzak eskatuko ditugu. Aurreikusten dugunaren arabera 1.500€ jasotzeko aukera izango dugu.

Gure ekarpenak (50.000€ bakoitzak)	200.000€
Mailegua	200.000€
Diru laguntzak	1.500€ jasotzea aurreikusten dugu

Kontuan izanik gure ur-parkea 2024ko ekainaren 16an irekiko dela, lehen hilabetean zenbat jende joango den gutxi gorabehera kalkuluak eginez, 50 pertsona bisitatuko gaituztela beraien maskotarekin egun batean estimatu dugu eta hilabete osoan, 1.500 eta 1.600 bisitari artean izango ditugu gutxi gorabehera. Egun batean bisita gaitzakeen jende kopuruarekin jarraituz, kalkulatu dugu asteen 350 sarrera salduko ditugula.

Sarreraren prezioak finkatzerako orduan, bi sarrera mota desberdin izango dira. Batetik maskotarekin datorren pertsonarena, sarrea honek 10€-ko prezioa izango du eta bestetik maskota gabe datorren pertsona laguntzaile bakoitzak 5€-ko tarifa ordainduko du parkean sartzeagatik. Amaitzeko, eman ditugun datuak oso erlatiboak dira, estimazioak alegia. Faktore askoren menpe egongo dira salmenta datuak; hasierako ezagutza fasearen arrakasta, eguraldia...

Laburbilduz hurrengo taulan parkea martxan dagoenean lortuko diren diru-sarreraren estimazioa dago:

Sarrera mota	Kopurua /hilabeteko	Guztira
Maskota soilik 5€	750	3.750€
Maskota + bisitaria 10€	1500	15.000€
Laguntzailea 5€	750	3.750€
GUZTIRA =		22.500€

